


ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIXIA



Zubikua inguruko aldaketak

Hain zaharra be ezta fotografixa hau. Bizi garien askok ezagutu dogu hola edo antzera Santa Ana aldeko paraje hori. Baiña **1980ko hamarkadan kanbixo galantak** izan zittuan, mojak konbentu klasiko horretatik Garagaltzako barrira fan ziranian. Udalak bereganatutako eraikuntza eta lur sail zabal horreittan **makiñatxo bat aldakuntza gauzatu dira harrezkero.**

Elizan **auditorixua** eta **antzokixa** modutu euen, hitzaldi, kontzertu, jaialdi, teatro eta beste ikuskizun batzuetarako, eta urte batzuetan **zine-aretua** be izan zan; konbentuan, barrutik zihero hustu ondoren, **Txantxiku ikastolarako ikasgelak** eta lokal batzuk egogittu zittuain; sakristauaren etxietan **hainbat udal zerbitzu** jarri izan dira: ertzainak hasieran, udaltzainak ondoren, bake-epaitegixa, udal musika-bandaren entsaio-lekua edota kumun publikuak; eta aurreko zelaixari **bestelako itxuria** emun xako.

Dana dala, etziran makalak izan mojak ortu-lanetan ebalten euen eremu haundi horretan geroztik modututako obrak be; fotografixan saihesbide azpitan, hormaz inguratuta eta malatuaz ziharkatuta agiri dan saillian, hain zuzen. Hor jaso da, fase batian baiño gehixagotan, **Zubikoa kiroldegixa** hainbat atalekin: **pelotalekua, igarilekua, gimnasiua, tabernia** edota kirol-mota desbar-diñetarako **pistak, deporterako ez ezik beste ikuskizun eta ekiñaldi askotarako** balixo dauenak: musika-jaialdi, bertso-saixo, batzar, herri-bazkari eta abarretarako. Aurten beste aldaketa inportante bateri ekin xao udalak: **igarilekuaren barrikuntza eta birmoldaketa** sakonari. Egixa esanda, baeukan premiñia, kontuan izanda, gaiñera, zenbateraiño erabilleria dakoin pizinetako instalaziñuak.

Apur bat erreparau ezkeru, badira argazkixan **beste mudantza eta xehetasun garrantzitsu batzuk** be San Juan kalian nahiz Bidebarrieta aldian: adibidez, **Aloña** zine-aretua izandakua eta aldameneko etxebizitzak eretsi barik egozen artian; Bidebarrietako poligonua proiektu hutsa zan sasue haretan; edota **Mailluneko** eta ondoko etxietan ezta **Pakeleku** alkartiaren arrastorik ikusten. Horreik be geruagoko kontuak izan ziran.

Berrogei urte, gutxienez, eukiko dittuan fotografixa hau interneten topau dau Iñigo Arregik.